

EUSKARAREN SENTSIBILIZAZIORAKO PILULA



- **MAIZTASUNA ADIERAZTEA**
- **IPUIN BAT**
- **UMOREA**
- **ARNASGUNEAK HIZKETAGAI**

MAIZTASUNA ADIERAZTEA

Noizbait sortu al zaizu zalantza maiztasuna adierazteko adberbioak idaztean (minuturo ala minutuero)? Zuzen erabiliko ote dituzu?

Bada, ez **erotu**. Izan ere, gaztelaniazko 'cada' horrela erabiltzen da euskaraz:

- Bi orduan behin heltzen da trena;
- Bi ordurik behin begiratzen dut mugikorra

Hiztegi Batuan ondorengo adberbioak daude jasota:

Aldiro, arratsaldero, asteartero, asteazkenero, astelehenero, astero, egunero, gauero, goizero, hamabostero, hilabetero, hilero, igandero, iluntzero, jaiero, larunbatero, minutuero, neguero, orduero, ostegunero, ostiralero, segundoero, udaberriro, udaro, udazkenero, urtero.

'Asteburuero' arautu bidean dago oraindik.

HITZEN GAINEKO LEIHOA

Magda Lemonnier-ek egunkarietako hitzak ebakitzen ditu, neurri guztietako hitzak, eta kaxetan gordetzen ditu. Kaxa gorrian amorruzko hitzak gordetzen ditu. Kaxa berdean, maitasunezko hitzak. Kaxa urdinean, hitz neutralak. Kaxa horian, tristeak. Eta kaxa gardenean xarma duten hitzak gordetzen ditu. Batzuetan, kaxa guztiak zabaltzen ditu eta buruz behera jartzen ditu mahai gainean, hitzak nahi bezala nahas daitezzen. Orduan, hitzek kontatzen diote zer gertatu den eta zer gertatuko den.

Eduardo Galeano: Las palabras andantes, 55. or., moldatua
Joxpiren segida. Hizkuntza (eta gehiago) mokadutxoak



Ados! Nola egingo dugu?
Han afalduko dugu?
edo eramango dugu
zerbait?

ARNASGUNEAK HIZKETAGAI



04

Hizkuntzaren biziberritzeari buruzko gogoetetan, lehen lerroan daude euskararen arnasmuneen etorkizunari buruzko iragarpenak. Arloan diharduten eragileak aspalditxotik ari dira eremu geografiko horien ahultzeaz ohartarazten, eta alarmak piztu zituen, bereziki, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak uztailean plazaratutako proiektzio batek, zeinaren arabera, joerari kontra egiteko neurri eraginkorrik hartzen ez bada, 2036an ez den ia euskararen arnasmunerik geratuko.



Eremu geografiko horiek hauspotzeko eta proposamenak eta gogoetan egiteko bilgunea izan da Azpeitia urriaren 16an eta 17an.